


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com


Jerardo Elortza Egaña

*Oñati,
Gipuzkoa
(1944)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatiko Kale Zaharrea jaio zen. Aita Torreauzoko Lazarraga (Elazarra) baserrikoa zen eta ama, berriz, Garibai auzoko Dolaetxe baserrikoa. Aleman filologia ikasi zuen Deustuko eta Münster-eko (Alemania) unibertsitateetan. Bergarako Aranzadi ikastolan hiru urtez irakasle jardun eta gero UNEDeko Euskal Kultur departamentuan beste 19 urtez jardun zuen. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailean urtebetez lan egin ostean, Oñatiko Mondragon Unibertsitatean irakasle izan zen erretiroa hartu zuen arte. **Bidegileak** liburuxken bilduma zuzendu du. Euskaltzale eta historiazale amorratua da Jerardo. Oñatiko Teresa Letamendirekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten. Hainbat elkarrietzeta egin zaizkio, gai askori buruz hitz egin du.

Zintak

ONA-024

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Hitzaldia
- **Data:**
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-032

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1998-01-01
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-033

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1999-01-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-034

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:**
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-035

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-036

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1999-05-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-037

- **Proiektua:** Oñatiko Ahozko Ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Irratia, Oñati
- **Data:** 1999-09-01
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Laixan Euskara Elkartea

ONA-163

- **Proiektua:** Roberto Altunaren fondoa
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1989-09-19
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Altuna Erle, Roberto

ONA-177

- **Proiektua:** Bergarako hitzaldien grabazioak
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1995-10-10
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog

ONA-231

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data:** 2017-07-08
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-232

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data:** 2017-07-08
- **Iraupena:** 46 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-236

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data:** 2017-08-02
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-237

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altuna Erle, Roberto - Elortza, Kepa
- **Data:** 2017-08-02
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa

ONA-290

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Bergaran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-03-03
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

ONA-323

- **Proiektua:** Euskararen historia soziala Oñatin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2025-12-03
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. 1492an Oñati jaurerria zen

- **Erref:** ONA-024/003

- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:02:25. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

1492an Oñati jaurreria zen, konderrria, ez hiribildu klasiko bat. Inguruko herriak jaiotze agiria (carta puebla) baduten arren, ez du halakorik Oñatik.

2. Oñati Gebaratarren esku

- **Erref:** ONA-024/004
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Gebaratarrak, Nafar erregeen inguruan sortutakoak eta gero Gaztelakoen lagunak, ziren XV. mendean Oñatiko jaunak. Inguruko herrietan ere bazituzten ondasunak.

3. Oñatiren itxura XV. mendean

- **Erref:** ONA-024/005
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

XV. mendean Oñatiko kasko zaharra gaurkoaren itxura hartzen hasita zegoen, San Juan eta Lekunberri auzoekin batera. Herria errekan gora eta errekan behera deskribatuta.

4. Burdingintza eta sute arriskua

- **Erref:** ONA-024/006
- **Iraupena:** 0:05:39. **Hasi:** 00:10:06. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Zura zen eraikuntzarako material nagusia, eta hori izan zen 1489an Kale Barriko sute izugarriaren arrazoi nagusia, nahiz eta ez bakarra. Burdingintza industria indartsua zegoen orduan Oñatin; mea ekarri, oletan burdina egin eta auzoetako nahiz kaleko sutegetietan lantzen zen burdina hori. Ultzezin famatuak ziren orduan Oñatin, eta erreminta eta armagintzarekin batera sutegi kopuru handia zegoen herrian, baita errementariak ere. Iltzeak Sevilalara eta Lisboara bidaltzen ziren. Duela 500 urte baino gehiago zeuden olak

Zubillaga auzoan. Ontziginetik eta batez ere banastaginek pisu handia izan zuten Oñatin. Garai hartan hasi ziren eraikuntza harria gehiago erabiltzen.

5. Kondearen ondasunak Oñatin

- **Erref:** ONA-024/007
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:19:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

1448an kondearen eta ahaide nagusien arteko borrokak izan ziren, Oinaztar eta Ganboatarren artekoak. XVI. mendetik aurrera Gebaratarrak indarra galtzen hasi ziren, erregearena nabariagoa egiten zen heinean. Baina oraindik Dorre etxea eta lur eta baserri asko zeukan kondeak Oñatin. Horrez gain, San Migel parrokia, Bergarako Santa Marina eliza eta Uzarragako parrokiako patronoa ere bazen.

6. Orduko baserri-auzoak

- **Erref:** ONA-024/008
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:19:03. **Bukatu:** 00:22:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Oñatiko baserri-auzoak egituratuta zeuden, Arantzazu izan ezik; hemen 1560 inguruan eraiki zen Ama Birjinarentzako ermita, eta hango baserri batzuk geroagokoak dira. 1489ko sutearen ondoren Oñatin egindako bizilagunen zerrenda moduko batean, 4-5 mila lagun ageri dira, inguruko herrietan 2-3 mila zeudenean, eta Donostian bertan 6-7 mila. Biztanleen erdia inguruko baserri-auzoetan bizi zen.

7. XVI. mendeko eraikuntza garrantzitsuak

- **Erref:** ONA-024/009
- **Iraupena:** 0:05:03. **Hasi:** 00:22:21. **Bukatu:** 00:27:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

<p>XVI. mendean aldaketa etorri zen Oñatiko kale aldera: hainbat eraikuntza oso garrantzitsu eraiki ziren mende horretan.</p> 1510-1520 artean San Pedro auzoko Lazarragatarrak kalera etorri ziren, gaurko dukearen etxean bizi izatera. Parrokia barruan kapera bat eraiki nahi izan zuten, euren hilobia han jartzeko, baina dukeak, orduko San Migel parrokiako patronoak, ez zien baimenik eman obra egiteko. Lazarragatarrek Errege Katolikoaren gortean lortu zuten Bidaurretako monasterioa eraikitzeko baimena, eta kondearekin auzi luze bat izan ondoren eraiki zuten.

1530 inguruan Oñateko seme batek, Avilako eta Mallorkako apezpiku izandako Rodrigo Mercado de Zuazolak, kondearen baimenarekin parrokiak barruan kapera eder bat eraiki zuen, bere mausoleoa bertan jartzeko. Parrokiako klaustroa. Obra zaila bezain ederra. Erregearen gortean aristokraziak lortutako diruarekin eraikia. Unibertsitatea 1539-1550, eraikuntza zibila, elizatik apartekoa.

8. Txokolategi eta uztargile eskola ondoan

- **Erref:** ONA-231/001
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Ospitalera (garaiko eskolaurrea-edo bertan zegoen, Karitateko Ahizpa mojek kudeatuta) Calle Colegio edo "Ikastola" kaletik sartzen ziren. Inguruko lantegi, denda eta tailerrak, eta haiekiko umeen harremanak azaltzen ditu.

9. 'Garoa' zinearen sorrera

- **Erref:** ONA-231/002
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:02:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

'Garoa' zinea ez omen zegoen oraindik, baina bai "zine parrokiak", abade etxean. Abade etxea handitu zenean jarri omen zuten 'Garoa'.

10. Maristen institutua; mezak latinez, sermoia euskaraz

- **Erref:** ONA-231/004
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:05:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Gerra denboran Institutua kendu eta 1939tik 1963ra arte maristak egon ziren berriz Unibertsitatean, eta haiekin ikasi zuen Jerardok. Eskolak erdaraz izaten ziren arren, ez zituzten zigortzen euskaraz berba egiteagatik. Euskaraz abesten zituzten kantu bakarrak aipatzen ditu. Erdal abesti "ez oso pedagogiko" batzuk gogoratzen ditu. Elizkizunetan erabiltzen omen zen

euskara. Meza latinez, baina sermoia euskaraz; ‘Bezperak’ eta arrosarioko ‘letaniak’ ere latinez kantatzen ziren.</p>

11. Dotrina, katekistak eta gipuzkera

- **Erref:** ONA-231/005
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:05:51. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Kalean ez, baina baserri auzoetan dotrina euskaraz ikasten zuten. Elizkizun batzuetan gipuzkerarekin gaizkiulertuak izaten zituzten.</p>

12. Ikasgaiak eta frankismoa

- **Erref:** ONA-231/006
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:07:52. **Bukatu:** 00:10:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

Maristetan geografia, gramatika, historia, matematika eta beste gai batzuk ere ondo ikasi zituzten; Espainiako historia ikuspegi bakarrekoa (Frankismoarena) jaso zuten, errejimenaren kantuekin apainduta.

13. 'El libro de España', maristetan

- **Erref:** ONA-231/007
- **Iraupena:** 0:06:44. **Hasi:** 00:10:18. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Maristetan irakurritako 'El libro de España' liburua gogoratzen du. Gerrako umezurtz batek penintsulan zehar egindako bidaia kontatzen da liburu horretan; gerra aurrean idatzi eta 1938an 'ukitutxo' batzuk emandako liburu zen.</p>

14. Euskal Herririk ez ikasgaietan

- **Erref:** ONA-231/008
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:19:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Historia orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Espainiako gauza asko ikasi zituzten 'El libro de España' liburuan, baina ez Euskal Herrikorik. Geografia gustuko zuen; mundu guztiko errekek ikasi zituzten, baina Euskal Herrian ez zegoen errekarik, ez eta Oñatin bertan ere.

15. Jolasak, kirolak eta pilotalekuak

- **Erref:** ONA-231/009
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:24:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Unibertsitateko patioan egiten zuten jolas. Herriko beste jolasleku batzuk aipatzen ditu; kalea bera, plazak, pilotalekua... bizikleta, pilota eta futbol zaletasuna sendoak ziren. Herriko pilotari nagusiak aipatzen ditu, eta mutikoekin nola jolasten zuten kontatzen du. Auzoetakoak, 'zinepeko'a eta beste pilotaleku batzuk, baita partikularrak ere, gogoratzen ditu.

16. Saturrarango seminarioa

- **Erref:** ONA-231/010
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:24:26. **Bukatu:** 00:26:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Maristetatik Saturrarango seminariora jo zuen Jerardok. Hondartzara joateko tren bidaiak kontatzen ditu, baina itsasoa 'deskubritu' seminarioan egin zuen. Seminarioa Saturrarango kartzela izandako eraikuntzan zegoen.</p>

17. Jerardorentzat Gipuzkoa ezezaguna

- **Erref:** ONA-231/012
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:27:25. **Bukatu:** 00:30:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Seminarioak ei ziren ikasteko erarik merkeenetarikoak. Gipuzkoa Saturrarango seminarioan deskubritu zuen, Lizartza, Errezil, Asteasu eta beste hainbat lekutako ikaskideei esker.

18. Seminarioan ikaskide euskaldun eta erdaldunak

- **Erref:** ONA-231/013
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:30:26. **Bukatu:** 00:31:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Gaztelera zen hizkuntza nagusia seminarioan; ikaskide asko erdaldunak ziren, batez ere arrasatearrak eta eibartarrak. 4-5 urte kosta zitzaion ikaskideekin euskaraz egiten ohitzea.

19. `Orixe´ren euskaratze lanak

- **Erref:** ONA-231/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:31:52. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Iparraldean `Orixe´k latinez eta euskaraz idatzi zuen elizako meza-liburua, neurri berberean hizkuntza bietan. Beste eliz ereserki batzuk ere euskaratu zituen. Euskaraz gauza horiek idazteko gaitasuna bazela ikustea, deskubrimendu bat izan zen Jerardorentzat.</p>

20. Ondarroako `Txakur handi´ zubia

- **Erref:** ONA-231/015
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:37:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Saturrararen ekaina arte bakarrik egoten ziren, hondartza eta haitzarte guztiak eurentzat zituztela. Mendira edo olagarrotara joaten ziren, baita Ondarroara ere. Ondarroako zubi mugikorra (`Txakur handi´ zubia).

21. Eskolako oporraldiak

- **Erref:** ONA-231/016
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:37:04. **Bukatu:** 00:39:52

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Gripe gogor bategatik hilabete beranduago hasi ziren eskolan 1957an . Hiru oporraldi izaten zituzten urtean, baina udakoak luzeegiak zirenez, 15 bat egun ematen zituzten Saturrararen udaran.

22. Oñatiko abadegaiei janzkera eta ibilbideak

- **Erref:** ONA-231/017
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:39:52. **Bukatu:** 00:42:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Oporrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Oñatiko agustindarren eta frantziskotarren seminarioetan opor laburrak izaten zituzten. Abadegaiek beti beltzez jantzi behar izaten zuten, eta batzuek, 17 urtetik gorakoek, sotana edo abitua ere bai. Arantzazutik Forura joaten ziren lehenengo, eta nobiziotza Zarautzen egin eta gero, Olitera joaten ziren.</p>

23. Oñatiko parrokia eta agustindarrak lehian

- **Erref:** ONA-231/018
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:42:45. **Bukatu:** 00:44:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Agustindarren seminarioaren eragina Oñatin. Mezen inguruan ba ei zegoen lehia parrokiaren eta agustindarren artean. Bakoitzak bere mezak, auzoak...

24. Agustindarrak, kontzilioa, seminarioak

- **Erref:** ONA-231/019
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:44:32. **Bukatu:** 00:47:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Agustindarrek Oñatin hasten zituzten ikasketak, eta bizpahiru urtetan Aroko seminarioan ikasi ondoren, Oñatin bukatzen zuten teologia kurtsoekin. 1965-6-7an Kontzilioak aldaketa handiak ekarri zituen liturgian, herri hizkuntzen erabileran, eta abarretan eta seminario asko hustu egin ziren. Garai hartan egokitu zen San Lorentzoko seminario berria eraikitzea, herriak dirutan lagundutakoa. Oñatiko agustindar asko Bilbora joan zen.

25. Donostiako seminarioa

- **Erref:** ONA-231/020
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:47:28. **Bukatu:** 00:51:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

Saturrararen ikasturte bat egin zuen, eta Donostian baino askeago bizi ziren han; Antigua auzoko leku ezegoki batean eraiki zuten seminarioa, Andreu gotzain katalanaren garaian. Gutxi irteten zuten seminariotik.

26. Konfirmazioak eta gotzainak

- **Erref:** ONA-231/021
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:51:45. **Bukatu:** 00:55:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Urte askoan Oñatin eliz-konfirmaziorik egin gabe zeuden, eta Jerardorenean parrokia bete-beteta zegoen. Konfirmazioen gorabeherak. Euskal Herriko gotzain batzuk.

27. Anton Garro irakaslea; 'Lauaxeta'

- **Erref:** ONA-232/002
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:02:05. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Anton Garro irakasleari esker ezagutu zituen euskal idazle eta liburu asko. Euskararen kontrako euskara irakasleak ere izan zituen. Santuen bizitzetako buruzko euskal liburu batekin hasi zen euskaraz irakurtzen. Gero etorriko ziren 'Garoa', 'Kresala'... 'Lauaxeta' ren liburu klandestinoak aipatzen ditu.

28. Villasante eta Euskal Literatura

- **Erref:** ONA-232/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Villasanteren "Historia y Literatura Vasca" goitik behera irakurrita, eta Garro irakaslearen laguntasunarekin, euskal literatura egon bazela konturatu zen. Lau berbatan laburtzen du Villasanteren lana.

29. Seminarioetan lehen aldizkariak euskaraz

- **Erref:** ONA-232/004
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:08:06. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Seminarioko ikaskide batzuek literatura talde bat eratu zuten, Jerardoren gidaritzapean. Beste kurtso batzuekin elkarlanean euskal aldizkari bat atera zuten ('Ezibide'). Garai bertsuan pasiotarrek, frantziskotarrek ('Jakín'), agustindarrek ('Erein'), eta beste zenbaitek ere antzerako lanetan ziharduten, 60ko hamarkada hasieran.

30. Antzerki eta oratoria euskaldunak

- **Erref:** ONA-232/005
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:14:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Seminarioko ikasleen artean 'Ehun Ducat' antzerkia egin zuten. Euskaraz izatea zen berririk handiena orduan. Oratoria trebatzeko ere hasi ziren euskara erabiltzen. Garaiko abade euskaltzaleak aipatzen ditu: Atxaga, Aranalde, Aranburu edota Letamendia, Lekuona, etab.

31. `Boga Boga´ euskal kantu liburua

- **Erref:** ONA-232/006
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:16:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak

Laburpena:

Seminarioko ikasleek 'Boga Boga' kantu liburua atera zuten, Anton Garro irakaslearen partiturekin. Ehun bat euskal kantu tradizionalak osatzen zuten liburua. Errepresio gogorrik ez zuten pairatu, norbaitek Iparraldera seminarioz aldatu behar izan zuen arren. Gerora, Kontzilioa ere urte haietan izan zen, gauzek hobera egin zuten.

32. Liturgia euskaldun bateratua

- **Erref:** ONA-232/007
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:16:52. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Liturgia euskaratzea aurrerapen handia izan zen euskararen erabileran, eta Iparraldeko, Gipuzkoako eta Bizkaiko elizak euskal testuak bateratzea aldaketaren beste zantzu bat izan zen. 1964an Lazkaon bildu ziren probintzia horietako seminarista ezagunak, era klandestinoan.</p>

33. Euskaltzainak, aldizkariak, Arantzazu

- **Erref:** ONA-232/008
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:24:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

<p>1964an Mitxelena, Labaien, Irigarai eta Aresti euskaltzainak ezagutu zituen Loiolan. Garaiko lehen euskal aldizkari literarioen garrantzia azpimarratzen du (`Euzko Gogoa´; `Egan´;...) Arantzazuko `Jakin´;ek ere lan asko egin zuen arlo horretan. Han elkartu ziren batean Rikardo Arregi, Setien, Aresti, Kapanaga... "Gora Euskadi!" bategatik izandako arazoak azaltzen ditu.</p>

34. Lehen urratsak euskalgintzan

- **Erref:** ONA-232/009
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

<p>Loiolan 1964an izan zen bileran Nemesio Etxaniz eta Arestiren arteko bromak, eta Mujikaren hiztegiaren fitxak azaltzen ditu. Era honetan hasi zen Jerardo euskalgintza munduan sartzen, justu seminariotik irten aurretik.</p>

35. Euskara seminario eta komentuetan

- **Erref:** ONA-232/010
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:26:42. **Bukatu:** 00:30:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>'Krutwig'ek kritika zorrotza egin zion orduko elizari, elizgizon franko euskaltzaleak ziren arren. Espainiako Unibertsitate publiko gabeko lurralde bakarra Euskal Herria zen, eta seminarioak eta komentuek izan ziren euskal mundua lantzeko leku bakarrak.</p>

36. Euskara elizan

- **Erref:** ONA-232/011
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:30:12. **Bukatu:** 00:32:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Elizak, nahitaez, herritarrekin hartu-emanak izateko euskara erabili behar zuen, baita sermoi eta misioetan ere. Seminarioetan ere hasi zen hori igartzen.

37. Hirurogeiko hamarkada bizia

- **Erref:** ONA-232/012
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:32:28. **Bukatu:** 00:36:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

II. Kontzilioak herri-hizkuntzak onartu zituen liturgiarako. Euskara txukuna, itzulpen onak eta Diarzek Lertxundirekin egindako salmo ulergarriak euskalgirotu zuten elizkizuna. Hirurogeiko hamarkadan eta hurrengo urteetan giro politikoak sekularizazio nabarmena ekarri zuen, eta baita hainbat kultur mugimendu ere: Ikastolak, 'Ez Dok Amairu', 'Zeruko Argia', Euskal

alfabetatzea, Euskara Batua, editorial berriak, emakume idazleak... 1968ko salbuespen egoeran antzerki mundua zigortuta.

38. `Oñatz´ elkartearen sorrera

- **Erref:** ONA-232/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:36:17. **Bukatu:** 00:38:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

Laburpena:

Hirurogeiko hamarkada horretan jaio zen Oñatzeko taldea, hasiera batean herriko neska-mutilen arteko elkarte bat. Besteak beste, bi antzerki talde sortu zituen Oñatzeko; bata euskarazkoa eta bestea gaztelerazkoa. Hor sartu ziren Jerardo eta lagunak buru-belarri. Hitzaldiak ere antolatu zituzten.

39. Euskal antzerki militantea

- **Erref:** ONA-232/014
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:38:43. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Oñatz Elkartearekin bi antzerki lan egin zituzten euskaraz, militantzia kutsu nabarmenarekin. Araotzeko saloian egiten zen aurre-estreinaldia, `Garoa´ zine aretoan estreinaldia emateko; Arrasateko `Gurea´n, Bergarako `Novedades´en, Eskoriatzan, Eibarren... 1967an izan ziren emanaldiak. Jerardok Bilboko `Kriselu´ antzerki taldean ere hartu zuen parte, Deustun ikasten hasi zenean.

40. Urte gogorak Euskal Herrian

- **Erref:** ONA-232/015
- **Iraupena:** 0:04:40. **Hasi:** 00:41:20. **Bukatu:** 00:46:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » 60ko hamarkada eta trantsizioa (1970-1980)

Laburpena:

1968ko salbuespen egoerak eten zuen orduan bizi zen euskal kulturaren loraldia. 1970ean Burgosko prozesua izan zen eta Euskal Herrian errepresio urte gogorak bizi izan ziren. Soldaduskan eta Alemanian ikasten eman zituen Jerardok urte haietako batzuk. Alemaniatik itzuli zenean laugarren antzerki lana prestatu zuen, Arestirena, Oñatzeko kanpo ematean boikotatu egin zutena. Antzerkigintzako lanez jardun da Jerardo.

41. PREU eta Zeruko Argia, Donostian

- **Erref:** ONA-236/001
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

1965ko ekainean seminarioa utzi, eta Donostian jarraitu zuen, orduko PREU frogan prestatzen eta klase batzuk ematen. Zeruko Argia astekarian idazten ere hasi zen, Rikardo Arregik 'zirikatuta', Saizarbitoria, Sarasola, Garmendia, Urretabizkaia eta abarrekin batera.

42. Ez Dok Amairu eta Gaur taldeak

- **Erref:** ONA-236/002
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:02:24. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Lanbideak » Artistak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bilbora joan zenean utzi zion Zeruko Argian idazteari, eta Xabier Kintana orduan ezagutu zuen. Ez Dok Amairu ere laster sortu zen, baita Donostiako Gaur artista taldea ere (Oteiza, Basterretxea...). Donostiako Sto. Tomas Lizeoan Ramon Agirreri, Koldo Mitxelenaren semea eta abarri eman zizkien klaseak euskaraz.

43. Deustura ikastera

- **Erref:** ONA-236/003
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:09:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Donostian jakin zuen Deustuko unibertsitatean beka bat sortu zela, Letrak ikasteko, eta aurkeztu egin zen; euskalduna eta mutila izan behar zuen hautagaiak, eta bera izan zen bakarra. 1966-67 ikasturtean filologia alemana ikasten hasi zen, Filosofia eta Letretan.

44. Alemana ikasten eta euskara irakasten, Bilbon

- **Erref:** ONA-236/004
- **Iraupena:** 0:05:06. **Hasi:** 00:09:20. **Bukatu:** 00:14:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Lehenengo bi ikasturteak batera egin zituen, eta hirugarrenean ekin zion filologia alemana ikasteari. Euskal Filologia artean ez zen ikasgai bat. Jose Luis Goti medikuak eta bere emazte Mari Angeles Larreak sortutako bekari esker egin zituen ikasketok. Bilbon euskara klaseak ere ematen zituen Jerardok. Deustun, Karmelo Rotaetxe eta Patxi Altunari esker, euskara irakasten hasi ziren. Altunaren 'Euskera Hire Laguna' metodoa baliatu zuten hartarako, Jerardok barne (1967-68 ikasturtean).

45. Euskara bizkaieraz irakasten

- **Erref:** ONA-236/005
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:14:26. **Bukatu:** 00:17:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Deustura euskara ikastera jende heldua ere joaten zen. Euskaltzaindiak ere ematen zituen klaseak, Xabier Peñaren metodoarekin bizkaieraz, batua artean sortu barik zegoelako. Noizean behin polizia joaten zen euskara klasetara, nortasun agiriak eskatzera. Jerardok ere Peñaren metodoa erabili zuen bere klasetan, bizkaieraz. Patxi Altunaren metodoak batuarekin antzekotasun gehiago omen zuen.

46. 'Kriselu' antzerki taldea

- **Erref:** ONA-236/007
- **Iraupena:** 0:02:59. **Hasi:** 00:17:52. **Bukatu:** 00:20:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Bilbon Euskaltzaindiak sortutako antzerki taldea eta haren kideak aipatzen ditu. Taldearen 'Kriselu' izenaren gorabeherak azaltzen ditu Jerardok. Taldearen zuzendaria Xabier Elorriaga izan zen. Garaiko euskal antzerki giroa.

47. Antzezlanak itzultzen

- **Erref:** ONA-236/008
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:20:51. **Bukatu:** 00:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Jerardok 'Kriselu' talderako itzulpen batzuk egin zituen; Ricard Salvaten obra bat itzuli zuen katalanetik, erdi-bizkaierara. Bilboko Aiala aretoan, Bergarako Novedades aretoan eta Durangon ere antzeztu zuten lan hori.

48. 1968ko 'udaberria'

- **Erref:** ONA-236/009
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:24:19. **Bukatu:** 00:28:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Bilboko 'Kriselu' antzerki taldean eta Oñatiko 'Oñatz' taldean aritu zen aldi berean. 1968ko 'Udaberria'ren oiartzunak nabaritu ziren ikasleen artean. 'Triunfo' aldizkariak eman zuen haren berri.

49. Pariseko 'Udaberria' eta salbuespen egoera

- **Erref:** ONA-236/010
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:28:01. **Bukatu:** 00:29:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

1968 urtean, Parisko eta Pragako 'Udaberria'ren garaian, hemen tiroketak eta ETaren lehen hildakoak izan ziren. Txabi Etxebarrieta Bilboko ikasleen liderra zen. Jerardo Alemanian zela hil zuten Manzanasko polizia Irunen, eta ondoren salbuespen egoera deklaratu. Badaezpada ere, Bartzelonatik bueltan itzuli zen etxera, ikaskide asko atxilotuta edo ihesean baitzeuden.

50. Euskararen batasuna. Euskaltzaindia

- **Erref:** ONA-236/011
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:29:45. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Politika » Euskal gatazka

Laburpena:

Garai horretan, 1968 inguruan, euskararen batasuna prozesu nekoso batean murgilduta zegoen jada. Euskaltzaindian derrigorrezkotzat jotzen zuten batasun hori. 1964ko Baionako bileran gutxi batzuk onartu zituzten. Euskaltzaindiaren sorrera eta Arantzazuko eta Loiolako kongresuak aipatzen ditu. 1968an Oñatin egitekoa zenaren gorabeherak azaltzen ditu.

51. Euskaltzaindiaren Arantzazuko kongresua

- **Erref:** ONA-236/012
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:33:35. **Bukatu:** 00:35:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

1968ko irailean ospatu zen Euskaltzaindiaren kongresua Arantzazun. Salbuespen egoeragatik, Oñatin egitekoa zena Arantzazun ospatu behar izan zen. Jerardo joan zen egunen batean, baita urduri samar joan ere.

52. Antzerki eta aldizkari euskaldunak Bilbon

- **Erref:** ONA-236/013
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:35:08. **Bukatu:** 00:38:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Idaztea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

'Kriselu' antzerki taldeko kide batzuek antzerkian edo zinemagintzan jarraitu zuten; Xabier Elorriagak eta Begoña Foruriak, esaterako. Euskal aldizkari batzuk elizaren babespean sortu ziren: 'Anaitasuna' Frantziskotarrena edo 'Zeruko Argia' kaputxinoena kasu. Idazle anitzek hartu zuten parte sorrera hartan: 'Basarri', Nemesio Etxaniz, Artetxe, Rikardo Arregi, Torrealdei, Kintana, Aresti, Imanol Berriatua... Aldizkari haiek lan asko egin zuten euskara batuaren alde.

53. Soldadutza Galizian, itsas armadan

- **Erref:** ONA-236/014
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:38:01. **Bukatu:** 00:41:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Bilbon zegoela 'etena' izan zuen Jerardok, soldadutzara joatea egokitu baitzitzaion, baita itsas armadara egokitu ere, 26 urte beteta zituelako.

Ferrolen itsasontzi barruan zirela hasi zen Burgosko epaiketa, 1970ean. Galizia ezagutu eta galiziera ikasteko baliatu zuen soldadutza. Soldaduskako pasarte batzuk kontatzen ditu.

54. Soldadutzan Saharako kostaldea zaintzen

- **Erref:** ONA-236/015
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:41:28. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

Itsasontzi zahar batean ekin zion soldadutzari. Maniobretan egin behar txarrak izaten zituzten, baina Saharako kostaldea zaintzera gustura joaten zen. Kanariar uharteak ezagutzeko aukera ere izan zuen. Jerardo han zela irletako sumendi batek erupzioa izan zuen.

55. Ikasketak bukatu

- **Erref:** ONA-236/017
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:46:46. **Bukatu:** 00:49:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean ikasketak bukatu zituen, errebalida eta tesina bat, alemanez eginda. 1972ko martxoan itzuli zen, astebeteko atzerapenarekin litzentziatuta, Ferrolen izandako izugarrizko greba baten ondorioz.

56. Münsterrera ikastera

- **Erref:** ONA-236/019
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:49:38. **Bukatu:** 00:52:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

1970ko hamarkadako giro politiko traketsa azaltzen du. Alemaniako Münsterreko unibertsitatera joan zen ikastera. Neska-lagunarekin joan zen, baina horretarako ezkondu egin behar izan zuten. Münsterren aurretik ezagutzen zuen Joxe Azurmendi zegamarra zegoen, etxera itzuli ezinik hango telebistan Burgosko prozesuari buruz egindako deklarazio batzuegatik. Garai berean Pako Garmendia, Jesus Mari Mujika, Joseba Arregi edota Lorentxo Igarzabal ere bertan ikasten zeuden.

57. Alemaniako egoera soziopolitikoa

- **Erref:** ONA-236/020
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:52:11. **Bukatu:** 00:55:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)

Laburpena:

Oporretan Münsterren ikasle askok egiten zuten lan. Bertan egindako lanak azaltzen ditu. Gerraosteko egoera latza zegoen oraindik Alemanian. Unibertsitatean bazen ezkerreko giroa; Baader-Meinhof taldearen sorrera gogoratzen du. Espartakistak eta mitinak.

58. Municheko atentatua eta garaiko kontuak

- **Erref:** ONA-236/021
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:55:58. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

1972ko udaberrian iritsi ziren Alemaniara eta udan Municheko Olinpiar jokoetan atentatua izan zen. Haren eragin itzela azaltzen du. Garaiko historiako kontu batzuk: Prusiako iheslariak, Kant; Silesia eta orduko lurralde aldaketak.

59. Ezin Humboldti buruzko tesinarik egin

- **Erref:** ONA-236/023
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 00:59:34. **Bukatu:** 01:03:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Deustuko unibertsitatean tesinarako gaia aukeratzeko Aita Santamaria dekanoarekin adostu beharra zegoen; European euskara ezagun egin zuen 'Guillermo Humboldt eta Euskal Herria' proposatu zion Santamariari. Dekanoak, baina, ez zion baimenik eman, tesina gaia euskararekin lotuta zegoelako.

60. Bertol Brecht, Humboldten ordeiz

- **Erref:** ONA-236/024
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:03:49. **Bukatu:** 01:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

'Humboldt eta Euskal Herria'gaia aukeratu ezin, eta 'Bertol Brecht-en

ondorengo antzerkia' aukeratu zuen bere tesinarako Jerardok. Alemanian orduan bazegoen ezkerreko antzerkia, 'antzerki dokumentala' deitzen ziotena. Jerardok Calvo Sotelok esana gogoratu zuen orduan: "Antes España roja que rota".

61. Gau Eskolak eta euskara klaseak

- **Erref:** ONA-237/001
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Alemaniatik itzuli zenean, tesina idazten bukatzen, aurrenengo umea bidean, lanik gabe... Gau Eskola batzuk ematen hasi zen, baita euskara klase batzuk ere. Gau Eskolen sorrera eta historia apur bat azaltzen du. Lehenengo euskara klaseei buruz hitz egiten du. 1973-74 urtetako kontuak.

62. Egoera politikoa. Bergarako ikastola

- **Erref:** ONA-237/002
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:07:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Oñatz taldeko antzerki taldean ere hartu zuen parte, Bitoriano Gandiagaren lan bat prestatzen. Euskaigintzan ere jardun zuen. 1974an Bergarako Aranzadi Ikastolan hasi zen lanean. Garai hartako Carrero Blanco, Francoren azken hilketak, Saharako 'Marcha Verde'a, etab., aipatzen ditu. Hiru urtez jardun zuen Ikastolan Bergara, Antzuola eta Elgetako neska-mutikoei irakasten.

63. Ikastolatik UNEDera

- **Erref:** ONA-237/003
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:10:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Aranzadi Ikastolaren kokapena eta hastapenak azaltzen ditu. Irakasle gehienak emakumeak ziren. 'Alkartu Nai' elkartearen lanei buruz hitz egiten du. Bergarako Seminario zaharraren aurreko eta garaiko erabilera. Jesuitak, Dominikoak, Ikastola... UNEDen sorreraraino (1976-77)</p>

64. Euskara UNEDen

- **Erref:** ONA-237/004
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:10:29. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

UNEDen euskararen gaia landu zen, hitzaldi , antzerki, abeslari, erakusketa etab.ekin. Bigarren ikasturtean Eusko Jaurlaritzak ezarritako 'B' eta 'D' euskara gaitasun mailak irakasten hasi ziren. Xabier Kintana, Xabier Mendiguren eta Jose Ramon Etxeberria, 'Hiru Mosketeroak' etortzen ziren ikastaroak ematera. Azkenean, UNEDen Euskara departamentu ofiziala sortzea lortu zuten.

65. Euskaltzaindia UNEDen

- **Erref:** ONA-237/005
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

'B' eta 'D' euskara gaitasun mailak, eta geroko 'EGA' tituluak, Euskaltzaindiarekin lankidetzan irakasten zituzten UNEDen, eta hari jarraituz antolatu zuten 1978ko Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra, UNEDen bertan. Antolakuntzan parte hartu zuten batzuk aipatzen ditu.

66. Jende asko euskara ikasten/irakasten UNEDen

- **Erref:** ONA-237/006
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:21:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Lau lagun eta idazkari bat besterik ez ziren 'B' eta 'D' mailak irakasteko Euskal Herri osotik larunbatero UNEDera etortzen zirenei . Inguruko lagun askok lagundu zuten klaseak emateko orduan. Larunbatetan Bergara jendez lepo egoten zen, euskara ikastera etorrira. Aitzindariak izan ziren UNEDen horretan.

67. UNEDeko ikasle eta irakasle

- **Erref:** ONA-237/007
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:25:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

'EGA' maila agertu zenean, UNEDen irakatsi zuten. Aurreko 'B' mailarekin ere jarraitu zuten, 'Sakontze maila' izen berriarekin. Linguistika edota beste ikastaro batzuk ere, euskaraz, ematen zituzten. Besteak beste Txillardegi, Alfonso Irigoien, Ibon Sarasola, Joseba Sarrionaindia edota Miren Azkarate izan ziren ikasle, irakasle, edo biak, orduko UNEDen. UEUra ere joan ziren UNEDetik klaseak ematera.

68. UEU, UNED, Sarrionaindia

- **Erref:** ONA-237/008
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:25:06. **Bukatu:** 00:29:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Euskara » Euskararen historia
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

UEUra ere joan ziren UNEDetik klaseak ematera. UEUren sorrera eta bilakaerari buruz mintzo da. Sarrionaindia, 'Sarri'ren atxiloketa eta haren ondorioz UNEDen egin zuten 'gose huelga' aipatzen ditu. Euskara UNEDen sartzea erraztu zuen, besteak beste, ikasketa araututako bat ez izateak eta Trantsizio garai korapilatsuan Madrileko kontrola zailagoa izateak.

69. Irakasleen euskal gaitasuna

- **Erref:** ONA-237/009
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:29:22. **Bukatu:** 00:32:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean, euskaraz irakasten zuten maisu-maistra edota Gau Eskoletako irakasle asko prestatu zituzten euskal irakasle eta euskal gaitasun tituluak lortzeko. 'D', 'B' eta EGA mailak irakatsiaz aparte, UNEDek beste gauza asko egin zituen, bertako azpiegiturak aprobetxatuz.

70. Euskara batuaren bilakaera

- **Erref:** ONA-237/010
- **Iraupena:** 0:04:35. **Hasi:** 00:32:37. **Bukatu:** 00:37:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Bergarako Euskaltzaindiaren Biltzarrean landutako gai eta hartutako erabaki batzuk. Geroko euskararen bilakaerari buruzko hausnarketa; hiztegia, 'h'a, aditz eta deklinazio... eta hedabideen eragina bilakaera hartan. Gipuzkeria, Bizkaitarrak...

71. Hedabideak euskararen bilakaeran

- **Erref:** ONA-237/011
- **Iraupena:** 0:04:55. **Hasi:** 00:37:12. **Bukatu:** 00:42:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskadi Irratian Euskara maila nahiko mugatua darabiltela dio. Hedabideen eragina betidanik erabili diren hitzak beste batzuekin ordezkatzeko. Idatzizkoa ez, baina ahozkoa pobretzen ari dela deritzo. Oratoria ere pobre samarra ikusten du. Hainbat adibide jartzen ditu.

72. Hur, gertu eta hurbil

- **Erref:** ONA-237/012
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:42:07. **Bukatu:** 00:43:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Aurrera baino batzuetan atzera ote doan euskararen kalitatea zalantzan dago Jerardo. Adibide zehatzak jartzen ditu hori azaltzeko: hur-gertu-hurbil...

73. Batua eta Oñatiko

- **Erref:** ONA-237/013
- **Iraupena:** 0:03:46. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:47:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Jerardo gaztea zeneko Oñatiko euskararen berezitasunak eta erabilera, hau, inguruko herriekoein alderatuta oso zabala zena. Batuaren bilakaeran Oñatikoarekin 'desadostasunak'. Orduan hasi ziren euskalkien eta batuaren arteko zubigintzari buruz pentsatzen.

74. Euskalkien iraupena

- **Erref:** ONA-237/014
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:47:38. **Bukatu:** 00:50:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Oñatin, eta baita Azkoitia eta Azpeitia bezalako herrietan bertako euskarari sendotasunez eutsi zaio; beste herri batzuetan, emigrazioaren eraginez-edo, posible izan ez dena. Nahiz eta gazteen euskara Jerardoren adineko jendearenarena bezalakoa ez izan gaur egun, Oñatin euskarak indartsu dirau. Gauza da nola lehengo berba eta esaerak gorde, lotu eta txertatu gaur egunekoan.

75. Errepublika garaian antzerkiak Bergarako Batzokian

- **Erref:** ONA-290/004
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:03:41. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

<p>Errepublika garaian Batzokietan eta Karlisten Zirkuluetan antzerkiak egiten ziren, batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Bergarako Batzokian ere bazegoen antzeztokia eta egiten ziren euskarazko antzerkiak. Gerraostean sortu zen Ernai taldeko batzuk gaztetan hor ibiliak ziren: Txomin Amasorrain, Juste Amenabar. Gogoan du 1950eko hamarkadan eskolatik joan zirenean ikusi zuela agertoki hura. Gerora jakin zuten Batzokia izana zela eta konfiskatuta egon zela. Nazionalisten edo errepublikanoen etxe eta lokalak konfiskatu egiten ziren.</p>

76. XVIII. mendeko antzezlanak

- **Erref:** ONA-290/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

1764an Xabier Muniberen "El borracho burlado" antzeztu zen Bergaran. Erdi euskaraz, erdi gaztelaniaz da obra. Orduko jauntxoek jarrera euskararekiko. Urte batzuk lehenago Barrutiaren "Acto para la Nochebuena" Arrasaten. Gero etena, XIX. mende bukaerara arte.

77. XX. mende hasiera: Toribio Alzaga eta Iztunde eskola

- **Erref:** ONA-290/007
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:08:08. **Bukatu:** 00:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

1905ean Lore Jokoak antolatu ziren Bergaran. Lore joko gehienetan egoten ziren antzerkiak. Toribio Alzagaren taldea XIX. mende bukaeran. Donostian 1915 inguruan Abelino Barriolak sortutako Iztunde eskolaren kargua hartu zuen Alzagak. Gerraostean Maria Dolores Agirrek jarraitu zuen talde horrekin, Jarrai taldea sortu arte.

78. Ernai antzerki taldea; Txomin Amasorrainen arrastoa

- **Erref:** ONA-290/008
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:11:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

1965ean Ernai antzerki taldea sortu zen Bergaran. Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain gerra aurrean ere ibiliak ziren. Langile porrokatuak eta euskaltzaleak. Txomin Amasorrainek arrasto handia utzi zuen Bergaran, arlo askotan: Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak; mendizaletasuna; `Zeruko Argia´ko kronikak. Jose Alvarez, Txominen oso laguna; muntaia guztietan parte hartzen zuen. Ernai taldeko besteak gazteagoak: Juan Luis Bikuña, Gabilondo, Arantxa Ibartzabal... Urte gutxiren buruan lau obra egin zituzten.

79. Ernai taldeak antzeztu zituen lau obrak

- **Erref:** ONA-290/010
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Ernai antzerki taldeak antzeztu zituen lau obrak. Jacques Deval-en `Ordu eroslea´; gaia eta pertsonaiak. Txomin Amasorrainek euskaratu zuen. Victor Ruiz Añibarro pasaitarraren `Ito ala ezkondu´; Nemasio Etxanizek euskaratu zuen. Etxanizen lotura Bergararekin. Benedetti italiarraren `Argi izpi bat´, nahiko libreki moldatua. Antonio Maria Labaienen `Malentxo alargun´ izan zen lehenengotakoa. Labaien erreferentea izan zen antzerki munduan.

80. Iñaki Ibarzabalek `Ama gaixo dago´ antzezlan egin zuen "Juventudes"eko gazteekin

- **Erref:** ONA-290/011
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:18:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Ernai antzerki taldekoak Lizargaraten egoten ziren. Bideo grabaketak ere egin zituzten bertan eta obra bat ere prestatu zuten. Iñaki Ibarzabalek Martin Ugaldek idatzitako `Ama gaixo dago´ obra egin zuen "Juventudes"eko gaztetxoekin 60ko hamarkada bukaeran.

81. 60ko hamarkadako antzerki-mugimendua

- **Erref:** ONA-290/012
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:18:56. **Bukatu:** 00:21:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

60ko hamarkadan antzerki-mugimendu handia zegoen: Oñatin, Urnietan, Alegian, Aulestian, Deban (Lukas Dorronsorok bultzatuta) Azpeitian (Imanol Elias)... Iparraldekoekin ere bazuten harremana. Donostian talde indartsuenak lehenbizi Iztunde eta gero Jarrai. Talde horretako partaideak: Lete, Urretabizkaia, Gurmendi... Letamendiak euskaratutako Arthur Miller-en `Denak nere semeak´ obra egin zuen Jarrai taldeak eta gero Oñatiko taldeak eta beste hainbatek ere bai. Bergaran ere antzeztu zuten Novedades antzokian.

82. Kriselu eta Jarrai antzerki taldeen harremana Salvat-ekin; talde "independentek"

- **Erref:** ONA-290/013
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:23:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia

Laburpena:

Bilbora ikastera joan zenean, Kriselu antzerki-taldean sartu zen. Ordurako obra bat egin zuen talde horrek: Arestik euskaratutako Ugo Betti-ren "Ahuntz herri bidegabea". Bigarren obra orduan modan zegoen Brecht-ena izan zen. Antzerki-talde "independentek". Kataluniako Adrià Gual taldea zuzentzen zuen Ricard Salvat-ekin harremana zuten bai Beobidek eta bai Arestik eta haren bitartez egin ziren zenbait obra Jarrai taldean.

83. Bilboko Kriselu antzerki-taldearekin Bergaran

- **Erref:** ONA-290/014

- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:23:54. **Bukatu:** 00:26:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Kriselu antzerki taldearen izenaren jatorria. Euskaltzaindiaren egoitzan egiten zituzten entseguak Bilbon, astean bi-hiru aldiz. Eztabaida politikoak izan zituzten obra prestatzerakoan, baina aurrera atera zen. Bilboko Ayalan antzetu zuten lehenbizi, gero Durangon eta hirugarrenez Bergarako Novedades-en.

84. 1967an antzerki-taldearen biltzarra Zaldibarren; 1968an egoera-aldaketa

- **Erref:** ONA-290/015
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:26:25. **Bukatu:** 00:31:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

1967an antzerki-taldearen arteko biltzar handi bat egin zen Zaldibarren. Balentin Lasuen zen orduan Zaldibarko alkate. Salvat etorri zen Bartzelonatik, Aresti ere egon zen, Kriselu taldeko kide asko ere egon ziren, nahiz eta ordurako sakabanatuta egon, Jarrai taldekoak, Zubikarai, Murua... Ernai taldeko kide batzuk ere egon ziren, Markos Gabilondo esaterako. Euskal antzerkiaren norabidea eta arazoak aztertu ziren, besteak beste. 1968an egoera politikoak eraginda, askok kanpora alde egin behar izan zuten, beste asko preso... Eragin handia izan zuen horrek ez bakarrik antzerkian, baizik euskal produkzio guztian. Zatiketak eta ezinikusiak sortu arren, antzerki-talde batzuek aurrera jarraitu zuten. Oiartzungo Lartaun eta Intxixu.

85. San Prudentzio auzoko gazteek `Erramuntxo´ antzeztu zuten 1965ean

- **Erref:** ONA-290/016
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:33:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Toribio Altzagak 1920an euskaratutako Pierre Lotiren `Erramuntxo´ obra antzeztu zuten San Prudentzio auzoan bertako gazteek. Auspoako bilduman argitaratu berria zen. Jose Luis Guridi zegoen orduan abade San Prudentzion, Angiozarrera bidali zuten Letamendiarekin batera ikasia. Bere ustez horrek izango zuen eragina antzerki-obra egiteko. Argazkian 1965eko urtarrila zela jartzen du, beraz, Ernai antzerki taldeak egindako lehen antzezlanaren aurretik.</p>

86. Oñatz antzerki-taldearen obra bertan behera zentsuragatik

- **Erref:** ONA-290/019
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:35:48. **Bukatu:** 00:37:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Bera Alemaniatik itzuli zenean Oñatz antzerki-taldeak laugarren obra bat prestatu nahi zuen. `Hiru gizon bakarka´ liburuaren zati bat hartu zuten eta entseguak ere egin zituzten. Obraren itzulpena eskatu zieten eta Gandiagak egin zuen, baina hala ere ez zuen zentsura gainditu eta bertan behera geratu zen.

87. Frankismoaren azken urteetako giro nahasia

- **Erref:** ONA-290/020
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:37:42. **Bukatu:** 00:40:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Frankismoaren azken urteetako giroa oso nahasia izan zen arlo askotan. Ernai taldea ere garai horretan desegin zen. Oraindik zentsura zegoen. Ezin zen edozer esan eta gauza asko antzerkiaren bitartez esan nahi izaten ziren. Ikastoletan ere liskarrak sortu ziren. Gerora, Trantsizio garaian, Maskaradarekin egin zela jauzi handia euskarazko antzerkian uste du.

88. 1974ko Bergarako kultura hamabostaldia

- **Erref:** ONA-290/023
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:42:34. **Bukatu:** 00:45:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen historia

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

<p>Bergarako ikastolan hasi zen lanean 1974-1975 ikasturtean. 1974ko abenduan kultura hamabostaldi indartsua antolatu zen. Tolosan egiten ziren halakoak. Durangokoaz gain, herrietan ere liburu-azokak egiten ziren. Auspoa eta Kulixkaz aparte, ordurako hasiak ziren Lur, Kriselu, Etor... eta beste argitaletxe batzuk. Bergarako kultura hamabostaldiko egitaraua. Txondorra egin zen plazan. Bertsolariak: Mattin, Xalbador, Uztapide... Hitzaldiak ere izan ziren. Gripe izurritea zegoen eta hitzaldiren bat bertan behera geratu zen. Artean ez zegoen itzultzailerik eta Euskara Zerbitzurik Udalean eta gogoan du itzulpen batzuk egin izan zituela garai hartan.</p>

89. `Makina´ antzezlanaren Bergarako ikastolako ikasleekin

- **Erref:** ONA-290/024
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:45:32. **Bukatu:** 00:47:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Bergarako ikastolan zebilenean antzerki txiki bat prestatu zuen ikasleekin: `Makina´. Lan hori Lur argitaletxeak ordura arte argitaratu gabeko lanekin kaleratu zituen bi antologietako batean irten zen. Antologia horietako hainbat lan aipatzen ditu. Tartean zegoen 1967an Zumalabe, Santamaria, Eizmendi eta Egigurenek sortu eta antzeztutako antzerkia.

90. Aranzadi ikastolaren hasierako lantaldea

- **Erref:** ONA-290/026
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:52:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Bera Aranzadi ikastola sortu eta hiru urtera iritsi zen. Ordurako ikastolan lanean zebiltzanak: Mari Karmen Amasorrain, Arantzazu Narbaiza, Maria Bitoria Arizmendi, Lide Mujika, Joxe Amilibia... Seminarioko dominikoen lokaletan hasi ziren eta zuzendaria Fernando Etxeberria zen. Jatorriz Salamancakoa zen Jaxinto Sanchez, fraide legoa, lan ezberdin askoren arduraduna izaten zen. Zamora lekeitiarra, Joxe Mari Elortza, Juan Martin Elxpuru, Agustin Amasorrain.

91. Aranzadi ikastolaren hasiera: baliabide gutxi eta talde handiak

- **Erref:** ONA-290/027
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:55:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Aranzadi ikastolan hiru ikasturte egin zituen. 1976-1977an UNED sortu zen eta gero hara pasa zen. Jesus Arpal. Ikastolaren hasierako urteetan baliabide gutxi zuten eta taldeak oso handiak izaten ziren. Dirua lortzeko bideak: taberna, errifak... Kuotak kobratu behar izaten zirelako eztabaidak. Sasoi batean ume asko ibili zen ikastolan.

92. Bergarako "Alkartu-nai" elkarte eta UNEDen sorrera

- **Erref:** ONA-290/030
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:56:49. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bergaran bazegoen kultura mailan eragin nahi zuen "Alkartu-nai" elkarte. Binixio Berasategi, Julian Larrañaga, Jose Luis Elkorro, Valle... ziren kideak. Bergarak garai baten irakaskuntzan izan zuen garrantzia berreskuratu nahi zuten eta, horretarako, urte batzuk lehenago martxan jarritako UNEDen (Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala) bidetik jo zuten. Zentrala Madrilan zegoen, baina beraiek gestionatu behar zituzten lokala, irakasleak... Zuzendari moduan Enseñanza-n historia irakasle lanean zebilen Jesus Arpal izendatu zuten eta haren emazte Adelina Moya arte irakasle moduan.

93. UNEDen arautu gabeko ekintzak: erakusketak, hitzaldiak...

- **Erref:** ONA-290/031
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:59:59. **Bukatu:** 01:03:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

UNEDek hasiera-hasieratik bazituen araututako ikasketak (zuzenbidea, historia...), baina baita arautu gabeko ekintzak ere (erakusketak, hitzaldiak...). Multzo hori aprobetxatu zen euskarazko hainbat eduki sartzeko. Lehenengo urtean bera izan zen arduraduna. Urtean zehar egin ziren ekintzak. Erakusketak: Nikolas Lekuonaren erakusketa, Xabi Otero, Jon Zabaleta, Angel

Elvira... Joxe Mari Aranaldere hitzaldia, Imanol Larzabalen kantaldia, "Cómicos de la legua" antzerki independentea...

94. 1978an Euskaltzaindiaren biltzarraren hamargarren urteurrena UNEDen

- **Erref:** ONA-290/032
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:06:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

<p>1978an Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egin zuen biltzarraren hamargarren urteurrena zela eta, balantze bat egitea pentsatu zen. UNEDen egitea erabaki zen. 1978 hasieratik hainbat bilera egin zituzten bertan, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina buru zela. Jesus Mari Larrazabal, Juan Martin Elexpuru, Sebas Agirre, Mikel Lasa... egon ziren UNEDetik antolakuntza batzordean. Letamendiak ere parte hartu zuen beste batzorde batzuetan eta kongresuko idazkari izan zen. 1978ko iraileko lehenengo egunetan ospatu zen UNEDeko areto nagusian. Villasante zen Euskaltzaindiako buru. Parte hartu zuten beste euskaltzain batzuk. Koldo Eleizalderen jaiotzaren urteurrena zenez, haren izenean egin zen kongresua.</p>

95. Koldo Eleizalderi egindako omenaldiak

- **Erref:** ONA-290/033
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:06:20. **Bukatu:** 01:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Koldo Eleizalde. Haren omenez egin zen 1978ko UNEDeko kongresua. Gerra aurretik egin zitzaion lehenengo omenaldia, Eusko Ikaskuntzak Bergaran egin zuen kongresuetako batean. Argazkian Urkijo, Bonifazio Etxegarai, `Orixe`, Aranzadi... azaltzen dira. Aranzadi, Aita Donostia eta Azkue agertzen diren Bergarako argazkia.

96. Euskara batuaren inguruko eztabaida 1978ko kongresuan

- **Erref:** ONA-290/034
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:07:20. **Bukatu:** 01:08:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1978an UNEDen egin zen kongresura euskara batuaren aurka zeudenak ere

joan ziren: Martin Olazar, Iruretagoiena, Oñatibia... Baina ordurako jada besteak indartuta zeudela dio. Mikel Zarate, Jesus Mari Sagarna... Antolakuntzakoek ez zuten izan saioak entzuteko asti askorik.

97. UNEDen Euskal Kultur Departamentuaren sorrera

- **Erref:** ONA-290/035
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:08:45. **Bukatu:** 01:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

UNEDen Euskal Kultur Departamentuaren sorrera. Euskaltzaindiak ordurako "D" eta "B" mailako tituluak sortuak zituen, baina ez zen ikastaro "arauturik" ematen, noizbehinkako ikastaro trinkoak bakarrik (Mendigurenak, Kintanak eta Etxebarriak). Hori dela eta, Euskaltzaindiarekin hitzarmena egin zen. Klaseak eta azterketak Bergaran izaten ziren eta Euskaltzaindiak titulu ofiziala ematen zuen. Orduan egin behar izan zituzten lanak: apunteak sortu eta abar.

98. Euskal Kultur Departamentuko ikasle eta irakasleak

- **Erref:** ONA-290/036
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:11:50. **Bukatu:** 01:13:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Gogoan du hasieran jende asko matrikulatu zela "B" mailan, gehienak euskaldun zaharrak. UNEDen areto nagusian biltzen ziren. Euskal Herri osoko jendea joaten zen. Irakasleak: Ibon Sarasola (gramatika), Alfontso Irigoien, Txilardegi (fonetika), Jerardo bera (euskal literaturaren historia)...

99. Euskal Kultur Departamentuaren protestak Aldundiaren murrizketen aurrean

- **Erref:** ONA-290/037
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:13:18. **Bukatu:** 01:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Kultur Departamentuan ikasle asko zituzten sasoian, Foru Aldunditik esan zieten murrizketak izango zituztela eta beraien departamentua izango zela lehenbizi kenduko zutena. Orduan mugimenduak sortu ziren: manifestazioak, protestak... Azkenean ez ziren ausartu murrizketak egiten eta indartuta atera zen departamentua.

100. EGA titulazioaren sorrera

- **Erref:** ONA-290/038
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:15:00. **Bukatu:** 01:16:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Euskaltzaindiak euskara titulazioen ardura Jaurilaritzari pasa zionean eredu birmoldatu zen. Mikel Zalbidek Nicholas Gardnerren laguntzaz EGA titulua sortu zuen, Ingalaterrako eredu kontuan hartuta. Hizkuntzaren gaitasunari begiratu zitzaion.

101. UNEDen Sakontze Maila: sorrera, irakasleak

- **Erref:** ONA-290/039
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:16:03. **Bukatu:** 01:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

EGA sortu zenean, "B" mailarekin zalantzan egon ziren. UNEDek orduan Sakontze Maila sortu zuen. Urte askoan lan handia egin zen. Ahozko azterketak. Miren Azkarateren kasu berezia. Sakontze Mailatik pasatako hainbat pertsona ezagun. Irakasleak ere asko.

102. Euskal Kultur Departamentuko lantaldea eta laguntzaileak

- **Erref:** ONA-290/040
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:17:50. **Bukatu:** 01:19:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

UNEDen bere Departamentuko irakasle finkoak: Jerardo bera, Juan Martin Elexpuru, Xabier Pardo eta Tere Irastorza. Idazkaria Ana Agirre bergararra. Horiez gain, laguntzaileak izaten zituzten, batez ere larunbat goizetan izaten ziren saioetan: Sarrionandia, Joseba Usabiaga, Jose Felix Diaz de Tuesta, Estepan Plazaola, Beatriz Irizar...

103. Euskal Kultur Departamentua: soziolinguistika arloa

- **Erref:** ONA-290/041
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:19:46. **Bukatu:** 01:21:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Soziolingusitika asko aztertu zen UNEDen Euskal Kultur Departamentuan. Juan Martin Elexpuruk izan zuen horren ardura. Sanchez Carrion 'Txepetx'. Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin batera hainbat ikasturte egin ziren. Hitzaldiak ematera Kataluniatik etorri ziren adituak: Rafael L. Ninyoles, Lluís Aracil, Strubell. Iñaki Arruti ere sarri joaten zen.

104. Partaide asko Euskal Kultur Departamentuak antolatutako kurtsoetan

- **Erref:** ONA-290/042
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:21:01. **Bukatu:** 01:22:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Kultur Departamentuak antolatutako kurtsoetan jende askok parte hartzen zuen, bai irakasle moduan edo hitzaldiak ematen (Karlos Otegi, Josu Zabaleta, Villasante...) eta baita ikasle moduan ere. Larunbat goizetan Ensenanza-ko eta Migel Altuna ikastetxeko gelak ere erabiltzen zituzten leku faltagatik.

105. Irakasleek titulazioa lortzeko eskolak UNEDen

- **Erref:** ONA-290/044
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:23:03. **Bukatu:** 01:25:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Garai batean irakasle asko zegoen eskolak ematen titulaziorik gabe. Horientzat eskolak antolatu ziren UNEDen Eskoriatzako Irakasle Eskolarekin elkarlanean eta euskara tituluarekin batera irakasle titulua ateratu zuten. Zenbait izen aipatzen ditu. Gogoan du Krutwig-ek hitzaldia eman zuela. Irakasle moduan nortzuk parte hartu zuten.

106. Euskal Kultur Departamentuaren amaiera

- **Erref:** ONA-290/047
- **Iraupena:** 0:03:29. **Hasi:** 01:28:33. **Bukatu:** 01:32:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Euskal Kultur Departamentua 1995-1996an kendu zuten. Euskal Filologia ikasketak sortu zirenean, hasieran asko UNEDeko kurtsoetara joaten ziren, hango ikasketak osatzera. Gerora, filologia hobetuz joan zen eta UNEDeko ikasle kopurua gutxitzen. Patronatua berezia zen: Aldundiak, Udalak eta aurrezki kutxek osatua. Patronatua desegiten joateak ere eragina izan zuen. UNEDen matrikulen dirua Madrilera joaten zen, baina, hain zuzen ere, euren departamentuarena ez. Beraz, alde horretatik ez zegoen aitzakiarik. Hala ere, Departamentua kentzea erabaki zuen. Azken urteetako borrokak eta amaiera tristea.

107. Lanbide zaharren hiztegia jasotzeko proiektua

- **Erref:** ONA-290/048
- **Iraupena:** 0:04:46. **Hasi:** 01:32:02. **Bukatu:** 01:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

UNEDen eta Bergarako Udalaren elkarlanari esker galdutako edo galtzear zeuden lanbideen inguruko hiztegia jasotzeko proiektua sortu zen. UNEDeko ikasle izandako zenbait kidek osatu zuten bilduma: 1. Linua, ehuna, artilea (Jaione Isazelaia); 2. Txondorak, karobiak, elurzuloak (Amaia Olañeta eta Argiñe Urkiola); 3. Zura: arotzak eta etxegileak (Anaje Narbaiza); 4. Burdina: errementariak eta perratzaileak (Iñaki Arana). Zorionez, UNED itxi eta urte batzuetara argitaratu ziren lanok, Bergarako Udalari esker. Xarles Bidegainen eta Miren Azkarateren aholkularitza izan zuten Euskaltzaindiatik.

108. "Juventudes parroquiales"en euskararen inguruko ikastaroa

- **Erref:** ONA-290/050
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 01:37:05. **Bukatu:** 01:40:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Bergarako "Juventudes parroquiales"en euskararen inguruan zegoen mugimendua. Ricardo Arregi eta Gabriel Arestiren hitzaldia. Euskararen inguruko lehenengotako ikastaroa "Juventudes"en egin zen. Iraskaleen artean Juan Antonio Letamendi eta Nemesio Etxaniz. Ikasturte amaieran agiritxo bat eman zieten. 1966-1967 ingurua izango zen.

109. Urretxindorak eta Ameslariak talde bergararrak

- **Erref:** ONA-290/053
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:42:40. **Bukatu:** 01:43:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Urretxindorrek eta Ameslariak talde bergararretako abeslari batzuk aipatzen ditu. Diskoak atera zituzten eta asko ibili ziren. Antzokiak bete egiten zituzten, Ez dok hamahiru taldeak indarra hartu aurreko sasoia zen eta.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com